

Pentsioen erreformaren aurrean

ELAren balorazioa

Azterketa Bulegoa

Bilbo, 2010ko abendua

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Pentsioen erreformaren aurrean ELAren balorazioa

AZTERKETA BULEGOA

Sarrera	3
1. Pentsioen murrizketa berriak	4
2. Pentsioen murrizketari buruzko iritziak	5
3. Konklusioak eta proposamenak	9

Sarrera

Espainiako gobernuak erabaki du beranduenera ere pentsioen erreforma 2011ko urtarrilaren 28rako onartuko duela. Aldez aurretik dekretazo baten berri eman bazuen ere, neurri konkretuak jasoko dituen lege proiektu artikulatu bat osatuko du azkenean. Edozein kasutan, kontua da urtarrilak 28koa data esanguratsua izango dela pentsioen erreformari begira.

Espainiako gobernuak dio pentsioak murrizteko beharra dagoela, "finantza-merkatuak asetzeko" borondatearen adierazgarri. Oso larria da herritarren beharrezan gaintik botere ekonomikoen interesak kokatzeko asmo hori. Gobernua patronalaren eta banketxeen interesen menpe jartzen da, eta langile-klasearen eskubide zein kezkek bazter uzten ditu. Haatik, jarrera hau ez dator ezustean, gobernu honen ezaugarri baitira murrizte-politika antisozialak. Adibidez, erreforma laborala, arlo publikoko soldatak murriztu eta 2011rako pentsioak izozteko dekretazoa, edota 2011ko aurrekontuak, gastua zeharo gutxituko dutenak.

Espainiako gobernuak EAJren laguntzarekin -bera bihurtu baita erabakiok guztiok babesten dituen kidea- hasitako politika honen emaitza dira eskubide laboral eta sozialen murrizketa eta langabeziaren gorakada. Iragarri duten pentsioen erreforma egitasmo neoliberal honen beste atal bat da. Honez gero, Toledoko Ituna eta gizarte-elkarrizketa ez dira baliagarri gobernuaren estrategiarako. Exekutiboa gauza batek bakarrik kezkatzen du: Kongresuan eta Senatuan erreforma berretsiko duen bozketa alegia, horretara iristeko prozesua eztabaidarik gabeko antzespen hutsal bat izango delarik. Aurreko egintzak eta esan dituztenak ikusirik, EAJ ageri da murrizketak babesteko alderdirik behinena.

2010eko urtarrilean aurkeztu zituen Espainiako gobernuak pentsioak erreformatzeko bere proposamenaren ildo nagusiak. ELAk orduan kritika egin zion asmo hari. Orain, orduan adierazitako murrizte larri guztiak egiteko prest dagoela berretsi du gobernuak. Eztabaida publikoa puntu batean tematu da, erretiroa hartzeko legezko adina 65 urtetik 67ra atzeratzean. Noski, hau da atzerakadarik handiena dakarren proposamenetako bat, baina, ondoren ikusiko dugun bezala, ez da bakarra. Erreformarekin erretiroko pentsio bat jasotzeko aukera eragotzi edo galarazi nahi dute (esaterako, erretiratzekoa adina atzeratuta), baita prestazio bat jasoko dutenen pentsioaren zenbatekoa gutxitu ere (hainbat modutan).

Orain gobernuak bere proposamen guztiak berriro mahairatu ditu, eta duela urtebete esandakotik harago doa. ELAren iritziz langileok eta gizarte osoak uko egin behar diegu erabakioi, beren helburua herritarren sektore garrantzitsu eta hazkor bati dagokion aberastasunaren zatia moztea baita; horretarako egungo eta etorkizuneko pentsiodunen bizi-baldintzak okertzeko ez dute inongo eragozpenik ikusten.

1. Pentsioen murrizketa berriak

Azken hamarkadatan pentsioak hainbatetan erreformatu dituzte, betiere sistema publikoak eskaintzen duen estaldura murrizteko helburuaz. Hain zuzen, ELAk salatu nahi du hau etenik ez duen murrizte prozesu bat dela, erreforma laborekin gertatzen den moduan; erakundeen estrategia urte gutxiko tartearekin aldaketak egitea da, batzutan txikiagoak eta beste batzutan handiagoak. Erreforma bakoitzarekin gizarte-babesa eraisteko prozesu luze bateko urrats bat egiten da.

Erreforma eta erabaki bakoitza hartzeko ematen diren azalpenekin sinestarazi nahi digute hau gai tekniko bat dela. Alabaina, hartzen dituzten erabakiek kutsu politiko nabarmena dute, betiere langileek pentsio duin bat izateko eskubidea baitago jokoan. Plazaratzen dituzten neurri guztiak norabide berean doaz: pentsio bat jasotzeko eskubidea murriztu eta pentsioaren zenbatekoa bera gutxitzeko. Bide hau ezin da inondik ere onartu, eta ELAk erabat arbuiatzen du.

Toledoko Itunak ahobatekotasunik gabe aprobatu ditu bere Konklusioak, hainbat gauza gainera zehaztasun eskasarekin jasotzen delarik. Espainiako gobernuak berriz esan du erretiratzeko adina 67 urteraino atzeratu nahi duela. Dauden agiriak ikusirik, honako neurriak aurreikustekoak dira:

Pentsioa jasotzeko aukera atzeratu edo galarazteko erabakiak

1. Erretiro adina 67 urteraino atzeratzea. Gobernuak puntu hau oso beharrezkoa dela dio behin eta berriz, eta ziurrenik urtarrilaren 28an aurkezten duen erreforman erabakiko du. Oso larria da, eta erretiroa hartzera iristen diren guztiei eragiten die.
2. Kotizaziopeko pentsio bat jasotzeko eskubidea izateko behar den urte kopurua gehitzea (egun 15 urte). Kotizaziopeko pentsio bat jasotzeko eskatzen den urte kopurua ostera ere gehitzearekin (hau hainbat bider egin dute) gero eta jende gehiago uzten dute pentsiorako eskubiderik gabe; batik bat lan-merkatutik atera beharra gehien pairatu izan duten pertsonak (langabeziaren edo beste arrazoi batzuren ondorioz) eta lanaldi partzialeko kontratuak dituzten beharginak. Horrenbestez, emakumeei bereziki egiten die kalte.

Pentsioen zenbatekoa murrizteko neurriak

3. Oinarri arautzailea kalkulatzeko aintzat hartzen den urteen kopurua gehitzea (egun 15 urte). Neurri hau da argudio teknikoekin zuritu nahi duten horietako bat. Dena dela, kopuru hau gehituz gero jubilatzen direnen pentsioa txikiagoa izango da. Adibidez, 15 urtetik 25era eramaten badute (hauxe adierazi zuen espainiar Gobernuak Europako

Batzordeari bidalitako agirian) pentsio berriak batez beste %10 murriztuko dira. Urte kopuru hori 20era gehituz gero, berriz, batez besteko pentsioa %6 jaitsiko litzateke, eta 35era pasatzeak %20ko murrizketa suposatuko luke. Aintzat hartzen den epealdia aurreko erreformetan 2 urtetik 8ra gehitu zen, lehenik, eta 8tik 15era, gero. Orain PSOEk, PPK, EAJk eta CiUk norabide berean aurrerago joatea erabaki dute.

4. Kotizatutako urte kopuruaren arabera jasotzea dagokigun pentsioa jaitea. Jasotzea dagokigun pentsioa kotizatu den urte kopuruaren arabera da. Adibidez oinarri arautzailearen %100eko pentsio bat izateko 35 urtez kotizatu behar da, eta %50 jasotzeko, 15 urtez. Orain, erreforma egin nahi dutenek kotizatutako urte bakoitzari esleituriko balioa murriztu nahi dute, honako hau gerta daitekelaarik: oinarri arautzailearen %100a lortzeko urte gehiago kotizatu beharra ezartzea (38 edo 40), edo %50erako, berriz, 20. Honek, benetan, jende gehienaren pentsioak murriztea esan nahi du, %100era iristeko beharrezko den kotizazio epealdia bete ez duten guztiei eragiten baitie.
5. Aurre-erretiroak eragozteak. Besteak beste, aurre-erretiroa hartzeko gutxieneko adina gehitzea (egun 52 urtetan dago, eta ez dute zehaztu zenbat atzeratu nahi duten).
6. Pentsioen erosteko ahalmena derrigor mantentzeko araua kentzea. Legeak dio pentsioak aurreikusitako KPI adina igo behar direla, eta KPI erreala handiagoa bada, alde hori ordaindu eta finkatu egin behar dela pentsioan. Toledoko Itunean hitzartu dabertan behera uztea KPI errealaren arabera gehitzeko bermea, pentsioak eguneratzeko KPI ez beste iritzi batzuk erabiltzeko aukera planteatuz.

2. Pentsioen murrizketari buruzko iritziak


Atal honetan pentsioen auziarekin zerikusia duten beste kontu batzuk aztertuko ditugu.

1. Pentsioen zenbatekoa

Pentsioei buruz jarduterakoan ezkutatu egin ohi da diru-sarrerara hau jende askoren bizibidea dela. Hots, benetan gauza batek axola du, erabakitzeak ea pentsioek eta gainontzeko prestazioek bizimodu duin bat bermatzen duten ala ez.

Hain zuzen, aipatzekoa da espainiar estatuan batez besteko pentsioa -2010eko azaroan Lan eta Immigratio Ministerioak emandako datuen arabera- hilean 784 eurokoa dela (972 EAEn eta 886, Nafarroan). Honek esan nahi du pentsioak urriak direla, eta asko hazi beharko luketeela pentsiodunek pobrezia mailatik gora egoteko diru-sarrerak izate aldera.

Batazbesteko hileko pentsioa (eurotan). 2010ko azaroan



Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa

Deigarria da, gainera, pentsioak soilik gastu-faktore gisa aztertzea, eta ez jarduera ekonomikoa bultza dezakeen zerbaiten moduan. Pentsioak hobetzea gizarte-justizia areagotzea da, eta aberastasuna banatzeko bitarteko bat dugu, ekonomia sozialagoa egin eta enplegu gehiago sor dezakeena.

2. Pentsioetako gastuaren bilakaera

Propaganda ofizialak, gobernuarenak zein komunikabide nagusi eta finantza-erakundeek, errepikatzen digu pentsioetako gastuak azken urteotan gainez egin duela. Haatik, benetako datuak propaganda horrek eman nahi digun mezutik oso urrun daude.

1995an, Toledoko Ituna sinatu zen urtean, espainiar estatuko pentsioetako gastua BPGaren %8,3 izan zen. Hots, ekonomian sortu zen 100 eurotik 8,3 bideratu zen 6,96 milioi pentsiodunak ordaintzera.

Gastua gehiegi hazten ari dela egia balitz, pentsioetako gastuak aberastasunarekiko duen zatiak izugarri hazi beharko zukeen. Halere, gezurra badirudi ere, kontrakoa gertatu da: 2008an (datu orokorrak jasotako azken urtea) pentsioetako gastua BPGaren %7,8 zen (13 urte lehenago baino 0,5 puntu gutxiago). Gainera, hori pentsiodunen kopurua 8,39 milioietara iritsi denean (ia milioi eta erdi gehitu denean, alegia) izan da.

Beraz, egia da euro kopuruari dagokionez pentsioetako gastua gehitu egin dela, baina gizarteak ez du gaur duela hamahiru urte baino errenta orokorraren zati handiagoa erabiltzen pentsioak ordaintzeko: Ez da egia azken urteetan pentsioetako gastuak gainez egin duenik.

Kotizaziopeko pentsioetako gastua (BPG %). 1995-2008

	1995	2000	2005	2008
Espainiar Estatua	8,3	7,9	7,5	7,8
HEH	8	8	8	8,4
EAE	8,5	8,4	8,5	8,8
Nafarroa	6,1	6,4	6,5	6,8

Iturria: ELAko azterketa kabinetea, Gizarte-Segurantzako, INEko, Eustateko eta IENeko datuekin.

3. Erretiroa atzeratzea eta gazteek enplegua lortzeko aukera

Hego Euskal Herriko gazteen langabezia-tasa %29,2 da, batez besteko mailaren ia hiru halakoa. Jendea beranduago jubilatzeak (erretiro adina atzeratu edota adin horretatik haratago lan egitea sustatzen delako) esan nahi du gazteek lanpostu bat lortzeko aukera zailago izango dutela.

Neurri hau enplegua eta aberastasuna banatzearen aurkakoa da, are gehiago egoera ekonomiko txar honetan, gazteen langabezia-tasa asko ari baita hazten. Honela, gainera, gazteek inoiz pentsio duin bat izateko bidea oztopatzen da, kotizateko urte gutxiago izango baitute.

4. Adituen iragarpen okerrak

Aditu omen diren horietxek duela zenbait urte (esaterako, 1995an) esaten zuten 2010ean sistemak kiebra joko zuela, eta pentsioetako gastuak BPGan zuen zatia izugarri gehituko zela.

Egun, 2010ean, kiebran egongo ginela zioen instituzio, erakunde edo aditu haietako batek ere ez du bere hutsegitea aitortu. Inork ez du dimisiorik eman. Aitzitik, orain berriro ekiten diote erasoari, esanez 2025an edo 2040an sistemaren finantza-egoera txarra izango dela, eta horregatik pentsioak murriztu egin behar direla. Guztiak ere, finantza-sistemaren interesentzat lanean ari diren pertsona eta erakundeak dira.

Noski, hauek ez ziren hipotesi okerrak; interes nabarmena dago pentsio-sistemaren inguruan demagogia egiteko: herritarroi sinestarazi nahi digute bide bat besterik ez dagoela, pentsio publikoak murriztu eta pentsio pribatuen negozioa bultzatzea.

5. Sistema pribatua bultzatzea

Gizarte-Segurantzaren sistema publikoak duen pisua gutxitzea proposatzearekin batera, botere politikoak eta botere ekonomikoak elkar hartu dute sistema pribatuaren garapena bultzatzeko. Euren eremuan arlo publikoak pisua galtzen du, sektore pribatuaren mesedetan, eta bide batez mezu bat irenstea nahi dute: banaketan oinarritutako sistema publikoak bermatu ezin duena kapitalizazio sistema pribatuak ziurta dezake. Hau gezur hutsa da, eta finantza-erakundeen interes espekulatiboak asebate nahi ditu.

Hain zuzen, aipatu beharra dago egungo finantza-krisiak agerian utzi duena, hots, pentsio-funts pribatuek ez dutela jendearentzako inongo estaldura errealik bermatzen. Errentagarritasuna negatiboa izatea gai garrantzitsua da, baina errealitateak erakusten digu gainera funtsak pentsio pribatuak ordaintzeko gauza ez izatea (hau Holandan gertatu da).

Bestalde, gogoeta egin behar dugu ea posible oten den pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak egitea, soldata eskaseko enplegu prekarioak hain ugariak direnean.

6. Aberastasunaren banaketa

Pentsioez jardutean beste funtsezko gai bat saihestu egiten da, aberastasunaren banaketa. Lehenik, esan dugunez, paradoxa bat ikusten dugu: Gero eta herritar gehiagok pentsioa jasoagatik, errenta osoaren antzeko zatia (edo txikiagoa) eskuratzen dute. Hau gertatu da 1995tik hona. Horrek esan nahi du pentsioa jasotzen duten herritarrek ez dutela aberastasunaren hazkunderan parterik izan, eta honek ez dauka propaganda ofizialarekin zerikusirik (pentsiodunekin gobernuaren zein eskuzabala den esaten duen propaganda).

Adituek etorkizunerako bota dituzten hipotesiak onetsiz gero (kontu hau oso eztabaidagarria izanagatik), benetan beste ideia bat sinestea nahi dute, eta hori ere onartu ezinekoa da: egun aberastasunaren %7,8 erabiltzen da biztanleriaren %16aren pentsioak ordaintzeko, eta helburu bat daukate, etorkizunean pentsioetara bideratzen den aberastasunaren zatia asko ez handitzea, pentsiodunak %30 izanagatik ere (biztanlerian pentsiodunak gehitu egingo dira, eta gainontzekoak gutxitu).

Ez gobernuak, ez patronalak, ez banketxeak, inork ez du azaltzen aberastasunaren gainerako zatia nork eskuratuko duen. Euren iragarpenak ontzat emanaz gero, demografiari eta egungo legeriaren arabera pentsioetako gastuari dagokionez, arrazoizko beste ondorio batera iritsi beharko genuke: pentsiodunen kopurua gehitzen bada logikoa da pentsioetako

gastua handitzea, eta hori ez da inolako arazoa, baldin eta pentsiodunek bizimodu duina izatea nahi bada bederen.

Aberastasuna hor dago, eta egongo da. Behar duguna taxuz banatzea da. Pentsioak murriztu nahi dituztenek enpresa- eta kapital-errentek gero eta zati handiagoa bereganatzea nahi dute, eta funts pribatuak funts publikoen bizkarretik handitzea. Pentsio-sistemen pribatizazioan aurrera egin nahi dute.

7. Autoezarritako mugak

Azken urteotan hartu diren erabaki politikoekin behartu nahi zuten egoera bat, pentsioak murriztea beste biderik ez egotea alegia. Hauek izan dira aipatutako erabakiak:

- Gizarte-kotizazioak murriztea.
- Kotizazioak igotzeko aukera baztertzea.
- Pentsioak finantzatzeko iturri bakarra kotizazioak direla finkatzea (gizarte-segurantzaren superavita pentsioak ez diren beste gastu batzuk finantzatzeko erabili izan da, eta erabiltzen ari dira, baina ukatu egiten dute pentsioak zerga bidez finantzatzeko aukera).

Hauek denak hautu politikoak dira. Pentsio-sistemak diru-sarrerekin eta gastuekin dauka zerikusia: gastua gehitzen bada, diru-sarrera handiagoak behar dira. Ezin dugu onartu egungo hautu politikoa: gastu publiko oro (errepideak, Abiadura Handiko Trena, justizia edo polizia) zerga bidez finantzatu beharra, baina ez kolektibo jakin batzurenzako prestazioak: pentsiodunak, ezintasunen batek jota daudenak edo langabeak; hauek murriztu egin behar dira. ELA ez dator inondik ere filosofia honekin bat.

3. Konklusioak eta proposamenak

ELA gizarte-segurantzaren sistema erreformatzeko neurrien aurka dago, izan ere:

- Sistemaren estaldura zeharo murrizten dute, eta hau ez dugu onartzen. Pentsioak urriak dira, eta sarri pobrezia mailatik ateratzeko aukera ere ez dute eskaintzen. Hainbat neurri hartuta pentsioa lortzeko aukera eragotzi edo galarazi nahi dute, batik bat sisteman etorkizunean sartuko direnentzat, baina baita gaur pentsio bat jasotzen dutenentzat ere.
- Herritarrei modu desberdinetan egiten diete kalte. Helburua jendeak erretiroa beranduago hartzea da, adinekoen osasunaren kalterako eta gazteak langabezia denbora luzeagoan izatearen truke.

- Sistema publikoaren egitekoa murrizten da eta pentsio-sistema pribatuak bultzaten dira. Honela estaldura unibertsala murrizten da eta estaldura bermaturik gabeko sistema pribatu bat sustatzen da; hain zuzen, krisiaren jatorrian dagoen espekulazio arazoaren zati bat.

Beste ondorioztapen batzuk:

- Agiri honetan ikusten denez, ez dago arrazoi ekonomikorik jubilaziorako adina handitzeko, ez eta pentsioak murrizteko ere. Horregatik, sindikalgintzak neurri hauen kontra ekin beharra dauka. Klase politikoak otzan betetzen ditu botere ekonomiko eta finantzarioaren nahiak. Botere politikoaren eta ekonomikoaren arteko aliantza medio eskubide laboral eta sozialak murrizten ari dira. Ez dute eragozpenik behin eta berriz gezurra esateko, pentsio-sistemak bere honetan etorkizunik ez duela esateko, alegia.
- Gobernuak, gutxiengoan, erreforma aprobatu nahi du urtarrilaren 28an. Baina erreforma hori berresteko Kongresuan aldeko gehiengoa lortu behar du. Azken aldietan EAJK babesa eman izan die murrizketei, aldeko botoa eman ez edo abstentzioa eginez.
- Behar beharrezkoa da urtarrilak 28a baino lehenago gizartearen gaitzespena agerraraztea, ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRUK deituriko greba orokorra horretarako aukera ezin hobea delarik .

Pentsioen eztabaida dela-eta, ELAk honakoa exigitzen du:

- Pentsioen murrizterik ez dadila onartu. Alderdi politikoek pentsioak murrizteko neurriak arbuia behar dituzte.
- Gizarte-segurantza sistemako prestazioak duintzea. Pentsioek eta gainerako prestazioek bizimodu duina izateko aukera eman behar dute. Hain zuzen, egungo pentsio asko hobetu egin behar dira; azken urteotako murrizketak bertan behera utzi behar dira; pentsioen balioa KPIz gaindi eguneratu behar da, pentsiodunek ere aberastasunaren hazkundean parte har dezaten.
- Sistemaren etorkizuna bermatzeko erarik egokiena soldatek erosteko ahalmena irabaztea da. Soldata urrien ondorioa kotizazio urriak dira, eta soldatak igoz gero kotizazio sozialak KPIz gaindi gehitzen dira.
- Gizarte-segurantza finantzatzeko bide bakarra ezin dira kotizazio sozialak izan. Zerga bidez finantzatzeko ez dago berez inongo oztoporik, beste gastu publikoak finantzatzen diren bezalaxe (horietako asko, interes sozial txikiagoa dutenak).
- Kotizazio sozialetan enpresentzako hobariak kentzea. Frogatuta dago hobari horiek ez dutela enplegurik sortzen, eta ondorio bakarra dutela, enpresa-kostuak murriztu eta etekinak gehitzea.

- Gizarte-segurantzari buruzko erabakiak euskal esparruan hartu behar dira. Hego Euskal Herriko langileok espainiar estatuan erabakitzen diren murrizketak pairatzen ditugu, gure eskubide sozial eta laboraletan. Aukera nazionala medio, baita ELAk aldezen duen gizarte-segurantza ereduagatik ere, gai hauei buruzko erabakiak Euskal Herrian hartzea exigitzen dugu.

